

18  
/  
19



EUSKADIKO  
ORKESTRA

**EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA**  
**ORQUESTA SINFÓNICA DE EUSKADI**

Zuzendari Titularra  
Director Titular  
**ROBERT TREVIÑO**



Bilbao/Bilbo  
Donostia/  
San Sebastián  
Vitoria/Gasteiz  
Pamplona/Iruña

[euskadikoorkestra.eus](http://euskadikoorkestra.eus)



## 2018/2019 DENBORALDIAREN AURKEZPENA

- **Robert Treviñoren lana titular gisa egin duen lehen urte honetan, baita konpromiso nabarmena ere, sei Abonukontzertutan parte hartuko baitu.**
- **“Bariazioak” da Denboraldiaren ideia nagusia eta honek isla argia du irudi berrian: “begiradarekin entzuteko bariazioak”.**

**Robert Treviñoren lana titular gisa lehen urte honetan:** Bera da Euskadiko Orkestraren gaur egungo egoera ulertzeko gakoetako bat. Denboraldi honetan egin duen lanak aintzatespen eta lausenguak jaso ditu Orkestra beragandik, publikoagandik, kritikagandik eta musikaren ingurunetik. Bere konpromisoa Orkestrarekin argi ikusten da, hurrengo denboraldiaren ere presentzia nabarmena izango baitu denboraldi osoan.

**Denboraldi berriaren irudia.** Irudia, oraingoan ere, hauslea, modernoa eta freskoa da. Ikusizko sinfonia original hau konposizio metaforiko modukoa da, eta ikuslearen arreta piztu nahi du, hura liluratu eta hark begiradarekin entzun dezan sustatu. Zentzu horretan, denboraldi berriko programak ilustratzen dituzten konposizio grafikoak bina elementu elkartuta sortzen dira, biak ere teknika edo baliabidez ezberdinen bidez irudikatuak: grabatua edo aintzinako ilustrazioa, batetik, eta argazkia, bestetik. Gaurkoa eta atzokoa, iraganean idatzitako musika eta orainaldian interpretatzen dena. Bi elementuak batuta, objektu berri bat sortzen da, izenburu bakoitza ilustratzen duen harmonia bisuala, ikuslearen interpretazio propiora irekitako esanahi bisuala.

## ABONU-DENBORALDIA

Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren 2018/2019ko Abonu-Denboraldia **irailaren 27an hasiko da Iruñean**, eta **ekainaren 13an bukatuko da Gasteizen**. Orkestrak hamarna kontzertu eskainiko ditu Bilbo, Donostia (bi saio), Gasteiz eta Iruñeko bere egoitzetan eta, beraz, Abonu-Denboraldian 50 kontzertu egingo dira guztira.

### 1. PROGRAMAZIOARI BURUZ:

Hurrengo Abonu-Denboraldian, luzea izango da berriz ere **Robert Treviño** zuzendari titularraren itzala. Programazioa zabaldu eta itxiko du, eta sei kontzertu-programa zuzenduko ditu. Egin duen diseinuan, Treviñok asmoa du soinu sinfoniko handia lantzen jarraitzeko, era koherente batez, zentzuz beterik eta epe luzeko ikuspegiarekin. Ondorioz, adibidez, Mahler bereziki sarritan agertzen da hura Orkestran hasi zenetik. Entzuleek, Mahlerren errepertorioarekin beti abegitsu, oraingoan musikagile horren *9. sinfonia* entzun ahal izango dute titularraren eskutik, baina baita hainbat egileren errepertorio sinfoniko handi bat ere: Elgar, Dvorak, Rakhmaninov. Bada, horien presentzia ondo justifikatuta dagoela egiaztatuko dugu ondoren.

Izan ere, Treviñok “erresistentzia, gatazka, berradiskidetzea” kontzeptuei erreparatzea proposatu du denboraldi honetan (2017/2018), Xostakovitx eta Brittenen bitartez. Alabaina, 2018/2019 denboraldian, “aldaerak” kontzeptuari helduko dio: etengabeko bilakaeran diren aldaerak, betiereko aldaerak, zalantzazko aldaerak, arrakastarenak. Horretarako, hiru musikagileri jarri die arreta: Elgar, Rakhmaninov eta Dvorak. Hiru musikagile handi, elkarrekin lotura gutxikoak, baina bizipen eta emozio pertsonal komunak dituzte: ziurgabetasuna eta deserrotzea. Treviñok gonbita egiten die entzuleei bere artearen bidez sentimendu horiek bizitzera, pertsona guztiak senti baitaitezke identifikatuta horiekin. Emozio-, tinkotasun- eta gainditze-mezu bat helarazi nahi du.

**Treviño Denboraldian:** Webern eta Lazkanoren arteko kontraste estetikoko programa batez hasiko da **irailean**, eta Sibeliusek bat egingo du haiekin, naturako aldaerekin inspiratuta. **Azaroan**, uztartu egingo ditu Dvorak, haren *Piano eta orkestrarako kontzertua* nahiko ezezaguna joaz (Stephen Hough), eta Elgar, haren *Enigma-aldaerak* ezagunagoekin. Horrez gain, Euskal Herriko soinetan inspiratutako lan txiki bat sortzea proposatuko dio Houghi. Era horretan sortu da *Agata*, txistu eta orkestrarako partitura txiki bat. Horretarako, Garikoitz Mendizabal izango du aldean. **Otsailean**, berriz, biolin-errepertorioan ezin bestekoak diren kontzertuetako batekin itzuliko da: Barberren *Biolinarako kontzertua*. James Ehnesek jarriko dio ahotsa partitura horri eta, gero, denboraldi honetarako aukeratutako musikagile bati helduko diogu: Rachmaninoff. Haren *Bigarren sinfonia* maisulana da Treviñoren iritzi; izan ere, erresistentzia dario, hauskortasuna, ikuspena, pasioa, kemena. **Maiatzean**, berriz, Mahlerren *9. sinfoniari* helduko dio, musikagilearen azkena. Mahlerren amaiera iragartzen du. Treviñoren bosgarren programak Dvorak eta Elgar uztartuko ditu berriz ere. Lehendabiziko musikagiletik, *Biolontxelorako kontzertua* ezezaguna entzungo dugu, Pablo Ferrández bakarlarri-lanetan jarrita, eta Elgarrena, berriz, *Bigarren sinfonia*. Robert Treviñok Rakhmaninoven *3. pianorako kontzertua* oso ezagun eta are handiagoaz bukatuko du denboraldia **ekainean**, Alexei Volodin handia pianojole jarrita.

Azken traka Txaikovskik emango du *Bosgarren sinfoniaz*, musika-lan arrandiatsua, aldaerez betea, hasi lehenengo notatik eta azkeneraino.

**Programazioan beste une batzuk ere izango ditugu. Sibelius (3.), Dvorak (8.) eta Xotakovitxen (1.) sinfoniak** dialogoan sartuko dira musikako kameleoiekin: **Christian Lindberg** (*The Tale of Kundraan*), bere buruaren tronboijole, zuzendari eta narratzaile lanetan; **Bernstein** ezagunagoa (*On the waterfront. Suite – La ley del silencio*), musikagile, zuzendari, pianojole, hezitzaile, politikari...; eta **Pinchas Zukerman** (*Biolinerako kontzertua - Beethoven*), biolin zein biolajolea hura ere, eta orkestra-zuzendaria. Interes handia izango du **Beethoveni buruzko abesbatzaren atalak** (*Itsasoa bare eta bidaia oparoa, Elegia kantua eta Fantasia koral*). Bada, **Andra Mari Abesbatzak eta Alfonso Gómez** pianojoleak aterako diete distira hiru 'perla' koral horiei, eta Hans Graf izango dute zuzendari. Aipagarria da, bestalde, **balleta itzuli egingo dela** Euskadiko Orkestra Sinfonikora, **Marie Antoinette eszenaratuz**. Thierry Malandain koreografoaren ekoizpen berri bat da; izan ere, egun, horretan dabil lanean, estreinatzeke. Beraz, duo berri bat osatuko dugu **Malandain Ballet Biarritz**ek eta gure Orkestrak, gure denboraldian, Biarritzen zein Versaillesen. Bukatzeko, berriz izango dugu gure artean **Mélanie Levy-Thiébaud orkestra-zuzendaria**; izan ere, berak zuzenduko du Haydnen musika atriletara daraman proiektu berri hau. Zuzendari frantsesa Gasteizko kontzertu sinfoniko baten buru ere jarriko da. Kontzertuan, askotariko lanak emango dira, tartean dela **Xabier Otaolearen Izozmendi** lanaren estreinaldia, AEOS/Fundación BBVAren mandatuz egindako lana.

**Euskal musika: gure herriko sorkuntza, musikagileak eta interpreteak.** Programazioaren atal hau nazioartean itzal handia hartu duen gure musikagile batekin hasiko dugu: **Ramon Lazkano**; hain zuzen, *Hilarriak* lanarekin itzuliko da gure orkestrako atriletara. **Xabier Otaolea** ere berdin, *Izozmendi* bere lana estreinatuko baitu Gasteizen. Abesbatzen arloan, **Andra Mari Abesbatza** izango dugu gurean Beethovenen hiru lana kantatzeko: *Itsasoa bare eta bidaia oparoa, Elegia kantua eta Fantasia koral*. Azken horretan, Alemanian bizi den **Alfonso Gómez** pianojolea arituko da. **Garikoitz Mendizabal** Stephen Houghen *Agata* lanaren estreinaldian parte hartuko du (7').

## **2. ZUZENDARIEI BURUZ**

**Robert Treviñok, sei programa eginik, programazioren zati handi bat hartuko du.** Hala ere, zuzendari titular horrek **Hans Grafi** utziko dio aldea, 90eko urteetan Euskadiko Orkestrako zuzendari titular izandakoari; **Pinchas Zukermanek** eta **Christian Lindberg**ek biolina eta tronboia, hurrenez hurren, eta zuzendari batuta txandakatuko dituzte beren kontzertu programetan. **Mélanie Levy-Thiébautek** itxiko du zirkulua. Tabakaleran eta BBK Aretoan eskainitako *Babilonia berriarekin* hasi zen Euskadiko Orkestraren buru (musika+zinema). Orain *Marie Antoinette* lanarekin itzuliko da, Malandain Ballet Biarritz bidelagun hartuta. Kemen handiko zuzendaria da, musika intzidentaleko proiektu honi heltzeko behar den teknikaz jantzia. Teknika horrek berak balioko dio Gasteizen emango den programa sinfonikoa zuzentzeko: Bachetik hasi eta Otaolearaino, tartean Stravinski eta Sibelius ere badirela.

## **3. BAKARLARI, BALLEK ETA ABESBATZARI BURUZ**

Atal honek beti izaten du erakarmen handia programazio guztietan. Bakarlariak, ballet konpainia eta abesbatza: batzuetan, gure entzuleek ezagutzen dituzte dagoeneko; beste batzuetan, lehenengo aldia izango da, baina denak dira itzal handiko izenak. Bi programatan, protagonistek beren bi gaitasun erakutsiko dituzte: bakarlari eta zuzendari izatea. Euskadiko Orkestrara itzuliko diren egungo bi pertsonaia handi dira: **Pinchas Zukerman** biolinjolea, musikako fenomeno laua hamarkadatan, eta **Christian Lindberg**, tronboiaren mito bizia, bere *The Tale of Kundraan* lanean narratzaile ere arituko dena. Entzuleek pozez entzungo dute pianoa, beti hain gogoko dutena, **Stephen Hough** pianojole, musikagile zein artikulu-idazlearen eskuetan. Geroago, **Alfonso Gómez** gasteiztarraren eskuetan piztuko da pianoa. Pianojole moldakor hori Alemanian bizi da egun, erreperitorio zabala du, eta oso atxikia da bere herrialdeko musika garaikideari. Denboraldia bukatzeko, **Alexei Volodin** pianojolea, talentu, teknika eta sentikortasunez bete. Biolinak bere tokia izango du, goian aipatutako Pinchas Zukermanekin eta **James Ehnes**ekin. Bigarrena orkestran estreinatuko da, eta orain arte ez bezala uztartuko ditu birtuosismoa, lirismo narea eta musikaltasun biribila. Bakarlarien atala bukatzeko, **Pablo Ferrández** dugu: gaztetasuna, adierazkortasuna, emozioa eta sedukzioa elkartuko ditu. Biolontxelojole madrildarra ICMA, International Classical Music Awardsen parte hartu duelako da ezaguna gure entzuleentzat. Musika klasikoaren Europako sari-banaketa ekitaldi hori gure Orkestrak antolatu zuen Donostian, Hiriburutzaren harira.

**Malandain Ballet Biarritz** konpainiari buruz. Orkestraren Denboraldian areagotu egin da haren presentzia *Magifique*, *Errauskine* eta *Ederra eta Piztia* izenburuak ekarri ondoren. Orain, Thierry Malandainenek sorkuntza berri batez, *Marie Antoinette* lanaz, beteko du gure eszenategia.

Abesbatzen arloan, **Andra Mari Abesbatzaren** presentzia da nabarmentzekoa, Beethovenen hiru 'perla' koral kantatuz: *Itsasoa bare eta bidaia oparoa*, *Elegia kantua* eta *Fantasia koral*. Azken hori *Bederatzigarren sinfoniaren* ernamuintzat jotzen da, eta Alfonso Gómez euskal pianojolea izango du bidaide. 90eko urteetako Orkestrako zuzendari titular izandakoak, Hans Grafek, hartuko du programa koral hau gidatzeko ardura.

## GURE ORKESTRAREN BESTE EKINTZA BATZUK:

Denboraldi bakoitzeko Abonuko kontzertuak ez ezik, horiek baitira denboraldi bakoitzeko oinarrizko ardatza, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren jardura kontzertuen katalogo oso anitz batez osatzen da eta, bertan, badira etxeko ekoizpen-zikloak zein beste festibal garrantzitsuei eta kultur ekintza eta erakundeei lotutakoak. 50 kontzertuko Abonu-denboraldiaren eta atal garrantzitsu honen uztarketari esker, euskal talde honek ehun ekintzatik gora egingo ditu Denboraldi osoan. Programatzen diren musika-formatuetako bakoitzera egokitzeko gaitasun horri esker, Orkestrak harremanak lotzen ditu askotariko estilo, interes eta adinak dituzten entzuleekin eta, ondorioz, 150.000 ikusletara heltzen gara denboraldi bakoitzean.

**VERSAILLESERA (PARIS) EGINDAKO HIRUGARREN IRTEERA: MARIE ANTOINETTE:** 2013ko ekainean *Errauskinerekin* estreinatu eta 2015ean *Ederra eta*

Piztiarekin itzuli ondoren, Euskadiko Orkestra eta Malandain Ballet Biarritz berriz arituko dira **“Opera Royal: les grands concerts de Versailles”** ziklo ospetsuan, Chateau de Versaillesen egitekoa. Euskadiko Orkestrak *Marie Antoinette* eskainiko du, Europako antzerki barroko ederrentzat jo izan dena, Thierry Malandainen sorkuntza berri bat. Dantza-ikuskizun berria J. Haydnen musikaz jantziko da. Lau emanaldi egingo dira 2019ko martxoaren 29tik 31ra. Ekoizpen berri hori 2017ko azaroan Biarritzen estreinatu ondoren helduko da Versaillesera, eta Orkestraren Abonuko Denboraldian (2018ko otsailean).

### **JAIALDIAK, BESTE ZIKLO ETA GRABAZIO BATZUK: LANKIDETZA ETA SINERGIAK BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN.**

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak **Bilboko Operaren (ABAoren)** Denboraldiarekin duen konpromisoari eutsiko dio. Bi izenbururekin eta “ABAoren Kontzertuan” egingo du. Pucciniren *La Bohème*ekin ekingo dio denboraldiari, Ainhoa Arteta Mimiren rolean sartuz, eta urtarrilean itzuliko da *I Lombardirekin*, Verdiren funtsa eta muina erakusteko. Gainera, nabarmendu behar da Euskadiko Orkestrak “ABAoren Kontzertua”ren eszenategia beteko duela (2019ko martxoaren 20an), **Jessica Pratt** protagonista izango duen jaialdi lirikoan; izan ere, ABAOk segurtatu duenez, “zoramena piztuko du” (kontzertuaren izenburua).

**Bilboko Musika-Música** jaialdira itzuliko gara, **Donostiako Musika Hamabostaldira, baita Iparraldera ere, Musique en Côte Basqueko Festival Ravelera**. Musikaren eta zinemaren arteko bide berriak arakatzen jarraituko dugu Zinemaldiaren testuinguruan, baita euskal musikan ere, **Musikasterekin**.

### **EKOIZPEN DISKOGRAFIKOA: LAU ERREFERENTZIA BERRI.**

#### **Grabazio berriak: PHILIP GLASS ETA ANGEL ILLARRAMENDI.**

Robert Treviñoren zuzendaritzapean eta Dmitri Makhtin biolinjolea bakarlari gonbidatu lanetan jarrita, Philip Glass estatubatuar musikagilearen biolinerako bi kontzertu erregistratuko ditugu MIRARE argitaldariaientzat. Orkestrak musikagile horri heltzen dion lehendabiziko aldia da; Makhtinek, baina, oso ondo ezagutzen du hura. Makhtinek arrakasta itzelak lortu ditu bere jotzeko manieraz, adibidez, La Folle Journée de Nantes jaialdian. Bestalde, joan den irailean Angel Illarramendiren omenez Zarautzen eskaintako kontzertua erregistratuta geratuko da KARONTE argitaldariairen bidez.

#### **Aurkezpena: SAINT-SAËNS ETA TOSHIO HOSOKAWA.**

Luze gabe helduko zaigu bi ekoizpenen aurkezpena. Biak ere 2017an grabatu ziren, NAXOS argitaldariaekin, eta Saint-Saëns eta Toshio Hosokawari dedikatuak dira.

Euskal musikako proiektuei heltzeaz gain, estrategikotzat hartu da Euskadiko Orkestra munduaren aurrean nazioarteko egileak grabatzen aurkeztea.

### **MUSIKA GELA: Euskadiko Orkestra hezkuntza- zein gizarte-arloan:**

Familia Kontzertuak, Eskola Kontzertuak, Sentsibilizazio Tailerrak, Ikastetxeetako Tailerrak, Orkestraren egoitzara egindako bisitak eta askoz gehiago eskaintzen dugu, oso gaztetatik musika-zaletasunean hezteko eta musika-hezkuntza arautua babesteko. MUSIKA GELAN, gainera, Orkestraren sen sozialena ateratzen da, dibertsitate funtzionala duten entzuleentzako ekintzen bidez, eta dagoeneko eredu handiak eman ditu, adibidez, "Soinuen Mosaikoa" proiektu berritzailea, egun hainbat sari

eskuratutakoa. **Atal honetan bakarrik, Euskadiko Orkestra 9.000 pertsonetara heltzen da urtero, eta igotzen jarraitzen du.**

### **MIRAMONGO MATINÉEA**

Euskadiko Orkestraren ganbera zikloa 27. denboraldira heldu da dagoeneko, formatu desberdin batean kalitatezko musika eskainiz. Musika unibertso berezi batean, Orkestraren Miramongo egoitzako entzunaretoan.

---

Bukatzeko, Orkestrak eskertu egin nahi du bere askotariko ekintzak garatzen parte hartu duten erakunde guztien lankidetzeta eta babes handia. 7.000 abonatu eta, oro har, entzuleek, erakunde babesle eta laguntzaileek, kultur eragileek, hedabideek eta abarrek egingarri egiten dute Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren jarduna.

### **Abonuen salmentari buruzko informazioa:**

Abonu berriak datorren maiatzaren 24tik aurrera jarriko dira salgai. Hiri guztietarako prezioa 65 €-an hasi eta 218 €-raino doa, kokapenaren arabera. Gizatalde batzuek tarifa bereziak dituzte. Abonuak Orkestraren webgunearen bidez ([euskadikoorkestra.eus](http://euskadikoorkestra.eus)) edo telefonoz (943 01 32 32) eros daitezke.



EUSKADIKO  
ORKESTRA

